

## ESKOLA eta CURRICULUMA

# Hezkuntzarako kanpo baliabideen azterketa



### II. Modulu-lanaren ikaslearen gida

Gradu Bikoitza: LEHEN HEZKUNTZA + HAUR HEZKUNTZA

1go maila (2024-2025 ikasturtea)

## Aurkibidea

<b>1. IRAKASLE-TALDEA</b>	<b>3</b>
<b>2. LAN MODULARRAREN TESTUINGURUA</b>	<b>4</b>
a. Edukien azalpen laburra	4
b. Lan taldeen osaera	4
c. Kasua	4
<b>3. IKASKUNTZA-HELBURUAK</b>	<b>5</b>
<b>4. MODULUKO GAITASUNAK</b>	<b>5</b>
<b>5. EGIN BEHARREKO LANAREN DESKRIPZIOA</b>	<b>6</b>
a. Lehen urratsa: lan taldearen osaketa eta kanpo baliabidearen aukeraketa	6
b. Kanpo baliabidearen esleipena	6
c. Behin-betiko lanaren egitura	6
d. Baliabidearen inguruko narrazio bisuala	8
e. Lanaren entregen epemugak	8
<b>6. KRONOGRAMA</b>	<b>9</b>
<b>7. EBALUAZIOA ETA ERRUBRIKA</b>	<b>9</b>
<b>I. ERANSKINA. KANPOKO BALIABIDEEN ZERRENDA.</b>	<b>10</b>
<b>II. ERANSKINA. HEZKUNTZAREN PSIKOLOGIA ETA DIDAKTIKA OROKORRAREN ZEHAZTAPEN TAULAK.</b>	<b>11</b>
<b>III. ERANSKINA. TALDEAREN FITXA INFORMATIBOA ETA AUKERATUTAKO KANPO BALIABIDEA</b>	<b>15</b>
<b>IV. ERANSKINA. EBALUAZIO ERRUBRIKAK</b>	<b>16</b>
<b>V. ERANSKINA. Arte Plastikoak eta Ikusizko Kultura Haur Hezkuntzan I ikasgaia. EBALUAZIOA</b>	<b>19</b>

## 1. IRAKASLE-TALDEA

<b>Ikasgaia</b>	<b>Irakaslea</b>	<b>Helbide elektronikoa</b>	<b>Bulegoa</b>
Hezkuntzaren Psikologia	Lorea Azpiazu	<a href="mailto:lorea.azpiazu@ehu.eus">lorea.azpiazu@ehu.eus</a>	2.05
Didaktika Orokorra			
Matematika eta bere Didaktika I	Joxe Mari Sarasua	<a href="mailto:joxemari.sarasua@ehu.eus">joxemari.sarasua@ehu.eus</a>	3.11
Naturaren Zientziak LH-ko ikasgelan I	Oihana Barrutia	<a href="mailto:oihana.barrutia@ehu.eus">oihana.barrutia@ehu.eus</a>	3.10
Gizarte-Zientziak eta bere Didaktika I			
Arte Plastikoak eta Ikusizko Kultura Haur Hezkuntzan I	Alaitz Sasiain	<a href="mailto:alaitz.sasiain@ehu.eus">alaitz.sasiain@ehu.eus</a>	3.02
<b>Koordinatzailea</b>	Oihana Barrutia		

**OHAR GARRANTZITSUA:** Irakasleen tutoretza orduak GAUR-en kontsulta ditzakezue.

## 2. LAN MODULARRAREN TESTUINGURUA

Lehen Hezkuntza + Haur Hezkuntzako "Eskola eta Curriculuma" moduluko diziplinarteko lan honek 2. lauhilabeteko 6 irakasgai hartzen ditu bere gain (1. Irudia).

<b>Hezkuntzaren Psikologia (1,2 ECTS)</b>
<b>Didaktika orokorra (1,2 ECTS)</b>
<b>Matematika eta bere Didaktika I (1,2 ECTS)</b>
<b>Naturaren Zientziak LH-ko ikasgelan I (1,2 ECTS)</b>
<b>Gizarte-Zientziak eta bere Didaktika I (1,2 ECTS)</b>
<b>Arte Plastikoak eta Ikusizko Kultura Haur Hezkuntzan I (1,2 ECTS)</b>

**1. Irudia.** "Eskola eta Curriculuma" modulua osatzen duten irakasgaiak eta kreditu kopurua.

Lana modu egokian bideratzeko asmoz, eGelan DILAN izeneko ikasgaia ireki da (lehen lauhilekoan erabilitako berbera). Ikasgai horretan, modulu honi dagozkion atalen bitartez kudeatu eta bideratuko dira eginbeharreko lanak, etab.

### a. Edukien azalpen laburra

Moduluko diziplinarteko lanak harremanetan jarriko ditu irakasgai bakoitzean dauden edukiak, etapako ikaskuntzako oinarritzko printzipioak eta Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) indarrean dagoen hezkuntza curriculum arauemailea, horiek guztiak lotuz Haur edo Lehen Hezkuntzako baliabide didaktikoetan dauden ikaskuntza proposamenekin.

### b. Lan taldeen osaera

Lan-taldeak 4-5 pertsonakoak izango dira, eta osaera ikasleek adostua. Alde horretatik, lana modu egokian burutzeko mesedegarri izan daitezkeen irizpide batzuk kontuan izatea aholkatzen dugu: (1) eraginkortasun maila egoki bat lortzeko lagungarri izan daiteke lehendik giza- harremana edo lan-harremana egotea eta baita taldeko kideak elkarrengandik hurbil bititza ere; (2) laneko gaiarekiko dagoen interesak sor dezakeen kidesuna.

### c. Kasua

Derrigorrezko Hezkuntzak daukan curriculum ikuspegi berria kontutan hartuta, zeina konpetentzietan oinarriturik dagoen, zentro bateko irakasle taldeak baliabide didaktiko berriak bilatzea erabaki du, eskolan lantzen diren oinarritzko jakintza eta konpetentzia espezifikoen lanketa, inguruan dauden hezkuntza baliabideetara bisitak eginez osatu ahal izateko. Erabakiak hartu aurretik, kanpo baliabide didaktikoen inguruko informazioa biltzea erabaki dute, Lehen Hezkuntzako 1go zikloko arlo desberdinetako oinarritzko jakintza, funtsezko konpetentzia eta konpetentzia espezifikoak lantzeko asmoz. Horrela, kanpo baliabide horren eskaintza didaktikoaren LH 1go ziklorako egokitasuna balioetsiko da, alde onak eta hobe daitezkeenak azpimarratuz.

Zuen eginbeharra, ikastetxeko irakasle taldearen kide berri bezala kanpo baliabide didaktikoen (interpretazio zentro edo museo) hezkuntza eskaintza aztertzea eta baloratzea izango da eta horrekin txosten bat osatzea.

### *Galdera gidatzaileak*

Hautatutako baliabide didaktikoaren hezkuntza eskaintza zehatz baten bitartez (proposamen didaktiko/taller), zein oinarrizko jakintza eta konpetentzia espezifikoa landu daitezke eskoletako ikaskuntza eta irakaskuntza aberasteko eta ikasleen irteera profila elikatzeke? Zein alde on eta zein hobetu beharreko aspektu dago baliabidean?

## **3. IKASKUNTZA-HELBURUAK**

- Lehen Hezkuntzako 1go zikloan landu beharreko oinarrizko jakintzak, funtsezko konpetentziak eta konpetentzia espezifikokoak lortzeko baliagarri diren kanpo baliabideen hezkuntza eskaintzak ezagutzea eta alderatzea.
- Hautatutako Lehen Hezkuntzako 1go zikloaren ikaskuntzaren oinarrizko printzipio batzuk ulertzea eta identifikatzea.
- Informazioa bilatzea eta kudeatzeko teknikak erabiltzea.
- Bakarka eta taldean etapa honetako curriculumeko arlo batzuen oinarrizko printzipioak ezagutzea eta aztertzea.

## **4. MODULUKO GAITASUNAK**

**M1.** 6-12 urte bitarteko etapan (Lehen Hezkuntzan) ikaskuntza-irakaskuntza oinarrizko printzipioak aztertzea eta ulertzea.

**M2.** Taldeka idatzizko txosten bat egitea Lehen Hezkuntzako baliabide didaktikoen azterketa eta balorazioari buruzkoa, informazioaren ~~teknologiak~~ eta komunikazioaren ~~teknologiak~~ erabiliz, baita hizkuntza eta komunikazio konpetentziak erabiliz ere.

**M3.** Ikasle talde batean modu aktiboan parte hartzea, zereginak eta erantzukizunak bere gain hartuz, modu kooperatibo, autonomo eta eraginkorrean lan egiten ikasteko.

**M4.** Gaur egun Lehen Hezkuntzako 1go zikloan erabilgarri izan daitezkeen baliabide didaktikoak hautatu eta deskribatu, curriculum osagaietatik abiatuz

Lauhilekoa amaitzean, ikasleek kanpo baliabide didaktikoak aztertzen jakin beharko dute, gaur egun indarrean dagoen curriculum araudiarekin bat egiten duten neurtu ahal izateko, eta, hala dagokionean, beste aukera batzuk proposatzeko.

Ikasleek hobeto ezagutuko dituzte Lehen Hezkuntzako 1go zikloan eta curriculumaren oinarrian dauden oinarri psikopedagogikoak. Oinarrizko gaietarako buruzko ikuspegi zabalago eta bateratzaileago bat eskuratzeko gain, didaktika espezifikokoak ezagutzen hasiko dira, beren lanketa didaktikoa, curriculumetik eta arloen funts teorikotik abiatuz.

Hainbat baliabideren artean, bakoitzaren egokitasuna balioesten eta argudiatzen jakingo dute, Lehen Hezkuntzako 1go zikloan jakintza nola sortzen den ikusirik, curriculumeko gomendio arautzaileak nolakoak diren, eta arloetarako aztertutako baliabide didaktikoek proposatzen dituzten oinarrizko jakintzak eta konpetentzia espezifikoak egokiak diren aztertuz. Lan horrek honako hau eskatzen du: arlo desberdinetatik baliabideei buruzko azterketa eta hausnarketa.

## **5. EGIN BEHARREKO LANAREN DESKRIPZIOA**

### **a. Lehen urratsa: lan taldeen osaketa eta kanpo baliabideen aukeraketa**

**Otsailaren 2rako** talde bakoitzak *Lan taldearen fitxa informatiboa (III. eranskina)* eGelara igoko du dagokion tokian. Izan kontutan, bidaltzeko momentuan hurrengo informazioa zehaztu beharko dela: **baliabidea (I. eranskina begiratu), ikasle taldea (LHH1) eta taldearen izena (zuek asmatutakoa).**

### **b. Bigarren urratsa: Kanpo baliabidearen esleipena**

Irakasle taldeak ikasleek egin duten aukeraketaren arabera kanpoko baliabide bat esleituko dio taldeari (otsailak 7).

### **c. Hirugarren urratsa: Behin-betiko idatzizko lanaren egitura**

Amaierako idatzizko lanak jarraian proposatzen den egitura izango du. **Bere luzerak ez ditu 15 orri gaindituko:**

#### **1. SARRERA**

Atal hau lanaren laburpen bat izango da eta horren ondorioz, beste atalak bukatutzat ematen direnean betetzea gomendatzen da (400-500 hitz gehienez).

#### **2. KANPOKO BALIABIDEAREN DESKRIPZIOA**

Kanpo baliabideari buruz jaso dezakezen informazioa kontutan hartuta talde bakoitzak baliabidearen deskripzioa egin beharko du gehienez 200 hitz erabilita **(I. entrega, otsailak 28).**

Esleitutako baliabidearen deskripzioa egiteko, galdera hauen erantzunak jaso behar dira:

- Non dago kokatuta?

- Zein da baliabidearen hezkuntza eskaintza zehatza eta nori zuzentzen zaio?

#### **3. KANPOKO BALIABIDEAREN ANALISIA**

Lanaren helburua kanpoko baliabideek baliabideak eskaintzen duen jarduera zehatz baten azterketa izango da. Helburua moduluko irakasgaiak nola integratzen diren ikustea denez, didaktika espezifikoetan irakasgai bakoitzari dagokion arloaren (“MATEMATIKA”, “ARTE HEZKUNTZA” eta “NATURA, GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN EZAGUTZA”) konpetentzia espezifikoak eta oinarrizko jakintzen garapenean nola laguntzen duten deskribatuko da. Didaktika eta psikologiako arloak zeharkakoak badira ere, II. eranskinean dauden jarraibideak jarraituz jarduera zehatz horretan nola egiten den behatuko da. Lana gauzatzeko kanpoko baliabide horretara bisita egitea beharrezkoa da eta baliabidea gertutik bizitzea (ebidentziak ere hartuaz, argazkiak, bideoak, txostenak, lanak, etab.).

Aldi berean, eta informazioa osatzeko, hango arduradun pedagogikoarekin hitz egitea (egongo balitz) eta harremanetan jartzea komenigarria da.

### *Didaktika Orokorra eta Hezkuntzaren Psikologia*

Kanpoko baliabidean egiten diren jardueretan eta behaketa txantiloian agertzen diren adierazleak kontutan izanda (II. Eranskina), informazioa jasoko da *Didaktika Orokorra eta Hezkuntzaren Psikologiaren* ikuspegietatik, irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuak azpimarratuz eta jardueraren analisia bideratuz.

### *Naturaren zientziak LH-ko ikasgelan I eta Gizarte zientziak eta bere didaktika I*

Lehen Hezkuntza + Haur Hezkuntzako Gradu bikoitzean ematen diren "Naturaren Zientziak LH-ko Ikasgelan I" eta "Gizarte Zientziak eta bere Didaktika I" ikasgaietan egin beharreko moduluarekiko lana zera da, kanpoko baliabideak Lehen Hezkuntzako curriculumean jasotako "NATURA, GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN EZAGUTZA" arloa garatzeko ematen dituen aukerak aztertzea, etapako 1 zikloari begira. Horretarako, kanpoko baliabideak kompetentzia espezifiko eta Lehen Hezkuntzako 1go zikloko oinarrizko jakintzei egiten dien ekarpena deskribatu behar da, Natura zein Gizarte Zientzien jakintza arloetatik eta, beti ere, modu egokian justifikatuz. Lan hau egiteko, curriculuma erabiliko da abiapuntu gisa, baina baita Gradu ikasgai hauetan Gizarte eta Natur Zientzien Didaktikaren oinarri eta funtsei buruz landutako edukiak ere.

Hurrengo galdera hauek baliagarriak izan daitezke analisi hori burutzeko:

- Lehen Hezkuntzako 1go zikloko "NATURA, GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN EZAGUTZA" arloan landu behar diren zein kompetentzia espezifiko jorratzen ditu aueratutako jarudera didaktiko zehatzak?
- Aukeratutako jardura didaktiko zehatzean zein oinarrizko jakintzak jorratzen dira? (zehaztu blokea, jakintza taldea eta oinarrizko jakintza espezifikoa ahal den neurrian).

### *Matematika eta bere didaktika I*

Esleitutako kanpo baliabideko jardura zehatz hori aztertu beharko da, diziplinartekotasunaren ikuspegia bistatik kendu gabe, baita matematika arloaren LHko 1go zikloko kompetentzia eta oinarrizko jakintzen ikuspegi berezitik ere. Kompetentzia horiek matematikan estandarrak diren bi iturri kurrikular hauetatik atera beharko dira: a) Curriculum berria, eta b) NCTM-ren "Principles and Standards for School Mathematics".


Hona hemen zenbait argibide bideratzaile:

- a) Zein 1go zikloko kompetentziak eta oinarrizko jakintzak landu daitezke, matematikaren ikuspegitik, baliabide horren bitartez?
- b) Arreta berezia jarri "arrazoibide matematikoa" lantzeko egokiak diren alderdietan, alor hori baita irakasgai bereziki lantzen dugun blokea.

#### 4. ONDORIOAK

Aukeratutako kanpoko baliabidearen jarduera zehatza aztertu ondoren, ondorioak atera lau puntu hauek kontutan hartuta eta zure eskolarentzako baliabidea egokia den edo ez justifikatuz:

- Jardueraren egokitasuna (adina, erabilitako euskarriak, material eguneratua, materialaren alderdi estetikoak, etb.)
- Diziplinarartekotasunaren bermea (Matematika, Natur Zientzia eta Gizarte Zientzia).
- Agenda 2030 eta Garapen Iraunkorrerako Helburuen (GIH) lanketaren egokitasuna jardueraren bitartez.



#### 5 ERREFERENTZIAK

[APA 7. edizioaren arabera.](#)

#### d. Baliabidearen inguruko narrazio bisuala

##### *Arte Plastikoak eta Ikusizko Kultura Haur Hezkuntzan I*

Arte Hezkuntzak eskaintzen dizkigun baliabide kontzeptual eta materialetatik abiatuta, narrazio bisual bat landuko da baliabideari eginiko bisitan izandako esperientzia eta bizipenetan oinarrituta.

Narrazio bisuala eraiki ahal izateko material eta teknika grafiko-plastiko egokiak hautatu beharko dira eta haiek zehaztasunez eta originaltasunez erabili beharko dira.

Baliabide didaktikoaren gaineko kontakizun bat eratuko da. Hau da, deskribatu ez ezik, ikasle talde bakoitzak baliabidearekiko bizi izandako bere esperientzia grafikoki (marrazkiak, argazkiak, eskemak...) kontatuko du, testu laburren laguntzaz (hitzak, oharrak, iruzkinak, ideiak).

Narrazio bisuala moduluko lanaren aurkezpenaren oinarri gisa erabiliko da, baliabide guztien ikuspegi orokorra izateko.

#### e. Lanaren entregan epemugak

Behin betiko lana 2025eko **Maiatzaren 9**rako entregatuko da. Horretarako lan-talde bakoitzak pdf formatuan eta behar den moduan maketaturik eGelara igo beharko du (**atxikitutako dokumentuaren izenean hurrengo informazio identifikatiboa jaso: Ikas taldea –LHH1-; Taldearen edo taldekideen izenak; Deialdia –adibidez: LHH1\_tipulak\_lentrega edo LHH1\_lopez\_ugarte\_arriola\_azpiroz\_lentrega**).



## 6. KRONOGRAMA

Lan honen garapenak hurrengo kronograma hau jarraituko du. Bitarteko entregarako dokumentuak zein behin betikoak eGelara igoko dira dagokien atalean eta eskatutako datarako.

Ataza	Data edo epemuga	Nork zuzendu
Aurkezpena	Urtarrilak 27	
Gida irakurri eta talde fitxa bidali	Otsailak 7	
Tutoreen eta kanpo baliabidearen esleipena	Otsailak 14	
Baliabidean bisita egiteko taerta	Otsailak 14 – Martxoak 21	
Kanpoko baliabidearen deskribapena (I. entrega)	Otsailak 28	Egokitutako tutoreak
Aukeratutako programaren deskribapen zehatza (II. entrega)	Apirilak 4	Irakasle guztiek
Feedbacka	Apirilak 7-16	Irakasle guztiek
Behin betiko entregatze-epea	Maiatzak 9	Irakasle guztiek
Baliabidearen inguruko narrazio bisuala	Maiatzak 2	Arteko irakasleak

\* Kronograman agertzen diren datak kontuan hartuta, lana aurreratzen joatea komenigarria da.

## 7. EBALUAZIOA ETA ERRUBRIKA.

Modulu-lanaren kalifikazioa irakasgai bakoitzeko kalifikazioaren %20 izango da. Kalifikazio hau moduluko irakasle guztiek adostutakoa izango da eta irakasgai bakoitzeko ebaluazioari gehituko zaio.

Lehen deialdian gairitzen ez duten ikasleek hurrengo deialdian gairitu beharko dute, behar diren hobekuntzak eta zuzenketak txertatuz.

Lanak ebaluazio-errubrikaren arabera ebaluatuko dira (**IV. Eranskina**).

\*Ikasleek moduluaren prozesuan zehar landutako APA arauak ezagutu eta erabili beharko dituzte (7. edizioa). Plagioa dagoela detektatuz gero, txostena baztertuko da, eta modulu lana ez da gairidituko. Euskararen erabilera zuzena egin beharko da. Akats ortografikoak eta morfosintaktikoak kontutan hartuko dira kalifikazioan eta ez gairiditzeko arrazoia izan daiteke.

## ERANSKINAK

### I. ERANSKINA. Kanpoko baliabideen zerrenda.

<https://www.gipuzkoaturismoa.eus/eu/zer-egin/arte-kultura/museoak>

<https://www.gipuzkoanatura.eus/eu/>

<http://www.losmuseosdelacostavasca.eus/programa-actividades/?lang=EU>

<http://www.oarsoaldeaturismoa.eus/es/>

<http://www.euskalmuseoak.com/>

II. ERANSKINA. Hezkuntzaren Psikologia eta Didaktika Orokorraren Zehaztapen taulak.

Hezkuntzaren Psikologia

1. Taula	ADIERAZLEAK		
	DIMENTSIOAK	GALDERA ERAGILEA	
<p><b>IKASKUNTZA-IRAKASKUTZA EREDUA</b></p>	<p><b>Ikaskuntza esanguratsua</b></p>	<p><i>Nola ikasten dute ikasleek?</i></p>	<p>Aurrezagutzak aktibatzen dituzte</p> <p>Aurrezagutzak eta eduki berrien arteko loturak eratzen dituzte</p> <p>Ikaskuntza aktiboa egiten dute</p> <p>Motibatuta daude</p>
		<p><i>Jarduera sekuentziak edota monitoreek ikaskuntza esanguratsua eragiten dute?</i></p>	<p>Aurrezagutzak aktibatzen dira</p> <p>Aurrezagutzak ebaluatzen dira</p> <p>Jarduerak diseinatzeko dira ikaskuntza emaitzen arabera</p> <p>Jarduerak egokitzen dira taldearen ezaugarrien arabera</p> <p>Jarduerek ikasleen arreta deitzen dute eta euren interesetara moldatzen dira</p>
	<p><b>Egitura kognitiboan aldaketak eta ikaskuntza sakona</b></p>	<p><i>Ikasleek dituzten kontzeptuengan aldaketak ematen dira?</i></p>	<p>Kontzeptua/k zabaltzen da/dituzte</p> <p>Aurretiko kontzeptuen esanahia aldatzen dute</p> <p>Lotura gabeko aurretiko kontzeptuen arteko loturak ezartzen dituzte</p>

			Kontzeptu baten ezaugarriak aldatzen dituzte eta, modu koordinatuan, beste batzuen ere
		<i>Eragiten den ikaskuntza sakona da?</i>	<p>Arrazoitzeko denbora uzten da</p> <p>Pentsamendu kritikoa eragiten da</p> <p>Sorkuntzarako lekua dago</p> <p>Ikaskuntzak transferitzeko aukera dago</p> <p>Praktika eta automatizazioa: errepikapenak egiten dira</p> <p>Ebokazioa praktikatzan da</p>
	<b>Irakaskuntza ereduak</b>	Irakaskuntza-markoa konstruktibista da? Zer egiten dute monitoreek?	<p>Klase expositiboa: azalpen kontzeptualak ematen dira</p> <p>Partehartzea gidatzen da (Vigotsky)</p> <p>Jolasak trebetasun edota eduki berriekin esperimintatzeko aukera ematen du (Piaget)</p> <p>Indagazio gidatua (Ausubel): arrazoiketa deduktiboa edota induktiboa eragiten da</p> <p>Deskubrimenduaren bitarteko ikaskuntza (Bruner): problemen ebazpena egiten da</p>

## Didaktika Orokorra

TAULA 1. Ezagutza mota	DIMENTSIOAK	GALDERA ERAGILEA	ADIERAZLEAK
OINARRIZKO JAKINTZAK	Ezagutza Curricularra	<i>Zer ikasi du?</i>	Oinarrizko jakintza multzoa eta azpimultzoa

TAULA 2. Metodologia	DIMENTSIOAK	GALDERA ERAGILEA	ADIERAZLEAK
METODOLOGIA	Jarduerak	<i>Nolako jarduerak proposatzen dira?</i>	Erantzun bakarra edo irekia dutenak
			Askeak edo gidatuak
			Sekuentzietan antolatuak (metodo jakin bat) edo antolatu gabeak
			Pasiboki edo aktiboki parte hartu beharrekoak
	Espazioaren Antolakuntza	<i>Nola antolatzen da espazioa?</i>	Aurrez prestatuta edo ez
	Denboraren Antolakuntza	<i>Nola antolatzen da denbora?</i>	Ordutegi itxia eta zurruna
			Ordutegi erdi-egituratua
			Ordutegi malgua eta moldakorra
	Taldearen antolakuntza	<i>Nola antolatzen dira ikasleak?</i>	Taldeka [txikian, handian, etab.]
			Banaka
			Egonkorra edo aldakorra
	Baliabide Materialak	<i>Zer baliabide materialak erabiltzen dira?</i>	Material manipulatioa
			Material audiobisuala
Paperezko materiala			

TAULA 3. Ebaluazioa

	DIMENTSIOAK	GALDERA ERAGILEA	ADIERAZLEAK
<b>EBALUAZIOA</b>	<b>Teknikak eta tresnak</b>	<i>Zeintzuk dira erabiltzen diren ebaluazio instrumentuak?</i>	Galdetegiak edo froga idatziak
			Behaketa
			Elkarrizketa
			Solasaldiak edo eztabaidak
	<b>Irizpideak</b>	<i>Zer ebaluatzen da?</i>	Jarrerak
			Prozedura
			Ezagutza deklaratioak
	<b>Funtzioa</b>	<i>Zertarako ebaluatzen da?</i>	Diagnostikoa, formatiboa, jarraia, egiaztatze (kalifikatzeko)
	<b>Egileak</b>	<i>Nork ebaluatzen du?</i>	Autoebaluazioa, kohebaluazioa eta heteroebaluazioa

### III. ERANSKINA. Taldearen fitxa informatiboa eta aukeratutako kanpo baliabidea

<b>TALDEAREN IZENA:</b>	
<b>TALDEAREN HELBIDE ELEKTRONIKOA:</b>	
<b>TALDEKIDEEEN IZEN-ABIZENAK</b>	<b>HELBIDE ELEKTRONIKOAK</b>
1.	1.
2.	2.
3.	3.
4.	4.
5.	5.
<b>ARDURAK ETA ARDURADUNAK</b>	
Bozeramailea	
Idazkaria	
Koordinatzailea	
Materialaren arduraduna	
Zentroekin harremana	
<b>TALDE ARAUAK</b>	
<b>BILTZEKO ORDUA, EGUNA ETA TOKIA</b>	
<b>AUKERATUTAKO KANPOKO BALIABIDEA (lehentasunaren arabera adier I. Eranskinetik)</b>	
1.	
2.	
3.	
4.	
5.	

#### IV. ERANSKINA. Ebaluazio errubrikak

	Hobekuntza daiteke (0-4.9)	Nahikoa (5-6.9)	Oso ondo (7-8.9)	Bikain (9-10)
<b>Moduluko gaitasuna</b>	<b>M1. 6-12 urte bitarteko etapan (Lehen Hezkuntzan) ikaskuntza-irakaskuntza oinarriko printzipioak aztertzea eta ulertzea.</b>			
	Ez ditu eduki eta termino asko erabiltzen eta garrantzitsuak direnak ezta ere. Kontzeptuak modu isolatuan aurkezte dira. Hausnarketak sinpleak dira eta justifikazioa falta zaie	Hainbat eduki eta termino biltzen ditu, baina batzuk ez dira garrantzitsuak. Kontzeptuak modu erraz batean erlazionatzen dira. Hausnarketak egokiak dira baina hobeto justifikatu liteke	Eduki eta termino dezente biltzen ditu eta garrantzitsuak dira gehienak. Kontzeptuak modu landuan erlazionatzen dira eta egoki justifikatuta dago hausnarketa.	Eduki eta termino ugari biltzen ditu eta garrantzitsuak dira. Kontzeptuak modu landuan erlazionatzen dira eta hausnarketak heldutasun maila handia erakusten du behar bezala justifikatuta dagoelarik.
<b>Moduluko gaitasuna</b>	<b>M2. Taldeka idatzizko txosten bat egitea Lehen Hezkuntzako baliabide didaktikoen azterketa eta balorazioari buruzkoa, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiliz, baita hizkuntza eta komunikazio kompetentziak erabiliz ere.</b>			
	Ez ditu eduki eta termino asko erabiltzen eta garrantzitsuak direnak ezta ere. Kontzeptuak modu isolatuan aurkezte dira. Idazkeran 4 akats morfosintaktikotik gora daude eta txostenaren formatua ez da zaindu.	Hainbat eduki eta termino biltzen ditu, baina batzuk ez dira garrantzitsuak. Kontzeptuak modu erraz batean erlazionatzen dira. Idazkeran 3-4 akats morfosintaktiko daude eta txostenaren formatua gehiago zaindu zitekeen.	Eduki eta termino dezente biltzen ditu eta garrantzitsuak dira gehienak. Kontzeptuak modu landuan erlazionatzen dira. Idazkeran 1-2 akats morfosintaktikotik daude eta txostenaren formatua txukuna da.	Eduki eta termino ugari biltzen ditu eta garrantzitsuak dira. Kontzeptuak modu landuan erlazionatzen dira. Idazkeran ez dago akats eta txostenaren formatua oso zaindua eta landua dago.



<b>Moduluko gaitasuna</b>	<b>M3. Ikasle talde batean modu aktiboan parte hartzea, zereginak eta erantzukizunak bere gain hartuz, modu kooperatibo, autonomo eta eraginkorrean lan egiten ikasteko.</b>			
	Eskatutako zereginak ez dira garaiz entregatzen, eta taldeak ezarritako datak atzeratzen ditu. Egindako lana eskasa da talde-giroa ez delako egon ezta lanarekiko interesik ezta ere.	Entrega bat ez da garaiz entregatu eta ez du taldearen plangintzan ondorioz izan. Egindako lana nahikoa da talde-giroa minimoa eta lanarekiko interesa egon delako.	Entrega guztiak garaiz entregatu dira eta taldearen plangintza egon da. Egindako lana egokia da talde-giroa eta lanarekiko interesa egon delako.	Entrega guztiak garaiz entregatu dira eta taldearen plangintza garbia egon eta ikusi da. Egindako lana bikaina da talde-giroa eta lanarekiko interesa eta kezka ikusi delako.
<b>Moduluko gaitasuna</b>	<b>M4. Gaur egun lehen hezkuntza etapan erabilgarriak diren baliabide didaktikoak hautatu eta deskribatu, elkarlanean, curriculum osagaietatik abiatuz</b>			
	<p>Curriculumaren osagai batzuen deskripzioak falta dira.</p> <p>Baliabidearen bitartez landu daitezken "NATURA, GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN EZAGUTZA" eta "MATEMATIKA" arloen 1go zikloko kompetentzia espezifikoak ez dira identifikatzen, edota identifikazioa ez da egokia, edota identifikatzen badira, ez dira justifikatzen.</p> <p>Baliabidearen bitartez landu daitezken "NATURA, GIZARTE ETA KULTURA</p>	<p>Curriculumaren lau osagai hauteman eta zehatz deskribatu dira.</p> <p>Baliabidearen bitartez landu daitezken "NATURA, GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN EZAGUTZA" eta "MATEMATIKA" arloen 1go zikloko kompetentzia espezifiko batzuk ez dira egoki identifikatzen edota horien justifikazioa ez da beti egokia.</p> <p>Baliabidearen bitartez landu daitezken "NATURA, GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN EZAGUTZA" eta "MATEMATIKA" arloen</p>	<p>Metodologiaren azalpenean curriculumaren osagaiak eta ezaugarriak agertzen dira.</p> <p>Baliabidearen bitartez landu daitezken "NATURA, GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN EZAGUTZA" eta "MATEMATIKA" arloen 1go zikloko kompetentzia espezifiko gehienak edo guztiak egoki identifikatzen dira baina horien justifikazioa ez da beti egokia.</p> <p>Baliabidearen bitartez landu daitezken "NATURA, GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN EZAGUTZA"</p>	<p>Curriculum osagaien arteko korrespondentzia analizatu da (koherentzia baliabide didaktikoaren barnean)</p> <p>Baliabidearen bitartez landu daitezken "NATURA, GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN EZAGUTZA" eta "MATEMATIKA" arloen 1go zikloko kompetentzia espezifiko gehienak edo guztiak egoki identifikatzen dira eta horien justifikazioa egokia da.</p> <p>Baliabideak lantzen dituen "NATURA, GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN</p>

	<p>INGURUNEAREN EZAGUTZA” eta “MATEMATIKA” arloen 1go zikloko oinarrizko jakintzak ez dira identifikatzen, edota identifikazioa ez da egokia, edota identifikatzen badira, ez dira justifikatzen.</p>	<p>1go zikloko oinarrizko jakintza batzuk ez dira egoki identifikatzen.</p>	<p>eta “MATEMATIKA” arloen 1go zikloko oinarrizko jakintza gehienak edo guztiak egoki identifikatzen dira.</p>	<p>EZAGUTZA” eta “MATEMATIKA” arloen 1go zikloko oinarrizko jakintzak modu egokian identifikatzen eta justifikatzen dira.</p>
--	---	---	--	---

## v. ERANSKINA. Arte Plastikoak eta Ikusizko Kultura Haur Hezkuntzan I ikasgaia. EBALUAZIOA

Zereginaren ikaskuntzaren emaitzak	Ebaluazio irizpideak	Zereginaren edukiak	Zeregina egiteko aukerak	Zereginaren prozedura
-Baliabide didaktikoaren atalak (helburuak, ikaskuntzaren emaitzak, balizko hartzaileak, jarduerak, ebaluazioa...) zehaztasunez identifikatzea eta deskribatzea osagai grafiko plastikoak erabiliz.	-Baliabide didaktikoaren atalak (helburuak, ikaskuntzaren emaitzak, balizko hartzaileak, jarduerak, ebaluazioa...) identifikatu eta deskribatu dituzte, osagai grafiko-plastikoak zehaztasunez erabiliz (%25).	-Haur eta Lehen Hezkuntzarako hiriko baliabide didaktikoak: eskaintza eta ezaugarriak.  -Haur eta Lehen Hezkuntzako Arte Hezkuntzako eskola-curriculuma.	-Zereginak ondoko formatuetako bat edo ondoko formatu batzuen konbinazioa har dezake, baina oinarri bezala DIN A3 dimentsioak hartuko dira, formatu hori tolestu, berreraiki, moztu... egin daitezke larrik:  <ul style="list-style-type: none"> <li>• kontzeptu mapa</li> <li>• liburuxka</li> <li>• ipuina</li> <li>• hiru dimentsioko objektu maneigarriak</li> </ul> Ikasle taldeak bestelako formatu batzuk aukera litzake.	-Ikasle talde bakoitzak Haur edo Lehen Hezkuntzarako baliabide didaktiko bana hautatu behar du.  -Ikasle talde bakoitzak baliabide hori modu grafikoan zehaztasunez deskribatuko du: helburuak, ikaskuntzaren emaitzak, balizko hartzaileak, jarduerak, ebaluazioa...  -Ikasleek baliabide didaktikoaren gaineko kontakizun bat eratu dute. Hau da, deskribatu ez ezik, ikasle talde bakoitzak baliabidearekiko bizi izandako bere esperientzia grafikoki (marrazkiak, argazkiak, eskemak...) kontatuko du, testu laburren laguntzaz (hitzak, oharrak, iruzkinak, ideiak).
-Baliabide didaktikoaren eta Haur edo Lehen Hezkuntzako curriculumaren arteko erlazioak ezartzea.	-Baliabide didaktikoaren eta Haur edo Lehen Hezkuntzako curriculumaren arteko erlazio koherenteak ezartzen dituzte (%25).	-Narrazio grafiko-plastikoen oinarri teorikoak, materialak eta teknikak.		
-Baliabidearekiko nor bere bizipenak modu ulergarri eta koherentean kontatzea eta baliabidearekiko nor bere inplikazio sentitua adieraztea osagai grafiko-plastikoak erabiliz.	-Baliabidearekiko nor bere bizipenak modu ulergarri eta koherentean kontatu ditu eta baliabidearekiko bere inplikazio sentitua argi adierazi du, osagai grafiko-plastikoak zehaztasunez erabiliz (%25).			
-Material eta teknika grafiko-plastiko egokiak hautatzea eta haiek zehaztasunez eta originaltasunez erabiltzea.	-Norberak material eta teknika grafiko-plastiko egokiak hautatu ditu eta haiek zehaztasunez eta originaltasunez erabili ditu baliabide didaktikoa deskribatzeko (%25).			